

KKISTAUAREN SINISMENA.



Esan zadazu nor dan, kristau maitea,
 Lur-zeruben ta zure Kriatzallea:
 Zuk bereala,
 Fedeaz ikasirikan ala,
 Oi dezu esan:
 Sinisten det Jaungoiko Bategan.
 Ongi diyozu:
 Gauza guziyak Ark egiñ ditu.

Fedezko agermenik ezpalitz ere,
 Jaunaren Izateaz baziñitezke
 Erraz oartu;
 Ezagumen osokoan sartu,
 Guzi-guziya
 Jaun-aundi-goyak dala egiña;
 Bada eziñ izan
 Echegille-gabe echerikan.

Eguzki ta illargi, izar guztiyak,
 Mill-ka ikusten diran aire-egaztiyak
 Lur-piñtiyakiñ,
 Diyote: Jaunak ginduan egiñ;
 Gure Jabea
 Da zeruko Jaun berdiñgabea,
 ¿Nork au ukatu?
 Naiz kredorikan entzun ezpalu?

Ezagumendu utsez, eskola gabe,

Errazki jakiñ arren guziyen Jabe
 Jainkoa dala,
 Bera besarka¹ gentzakeala
 Ez inoiz esan:
 Zeren Jauna Bere Izatean
 Goya da anitz;
 Adimentuz eskasak gu berriz.

Alaz guziyaz ere, zerbait ikasi
 Bagenezake, eta gaitean asi
 Jarduten Jaunaz,
 Ala fedez nola ezagumenaz,
 Deguna iritsten,
 Eta beakurturik² sinitsten;
 Bañan ez aztu
 Guziro laburrak gerala gu.

Jaungoiko Aundi yaren onoidadeak³
 Dirade kabu, bazter, ondo-gabeak;
 Eta mugarik
 Agertzen etzaye inonchotik;
 Mundu-Zerubak,
 Eta dakuskun⁴ gauz edertsubak,
 Ezer ez dira,
 Egilleaz neurri nai badira.

Baziñdake galdetzen asierarik
 Ote lukean izan norbaitengandik,
 Nuke eranzuten:
 Etzala inoiz asi izaten;
 Da betitandik;
 Ez ere izango du azkenik;
 Bere-Berez da:
 Inorenhandikan sortu ezta.

(1) Besarkatu: besoakiñ artu; oso eta guzi entenditu.

(2) Beakurturik: beera makurturik.

(3) Onoidadeak: perfekzioak.

(4) Dakusgun gauz edertsubak: ikusten ditugun gauz edertsubak.

Igaro ziran gauzak, eta oraingoak,
 Naiz etorkizun dauden urrutikoak,
 Bat aztu gabe,
 Bere begiyen aurrean daude:
 Guziya daki;
 Esan eziñ-goa Ark izaki
 Jakinduriya,
 Eta Begi guziz barnariya.¹

¿Jainkoaren Almenak² zenbateraño
 Dezakean aldegu guk egundaño
 Pensatu ere?
 Ez luke noski iñolaz neke
 Au berritzea;
 Beste milla mundu egitea;
 Ez eta gairik,
 Onetarako luke bearrik.

Zeñen ta diran gauza eder-aundiyak
 Beraren lan ugari-miragarriyak,
 Nai balu ala,
 Utsera biyur ditzakeala
 Ez enuratu;²
 Aren eskuba chit da almentsu;⁴
 Eta nai utsez,
 Eziñ lezakeanik deus ez.

Izan arren Bakarra guziyen Jauna,
 Argan dira arkitzen iru Persona;
 Arduraz entzun:
 Izatez Bat, Personaz Irudun,
 Da Jaun Aundiya;
 Elizak dauka erakutsiya:
 ¡Gauz ezkutuba!
 Makur dezagun adimentuba.

(1) Barnariya: barrena sartzten dana; barrengoa ere ikusten duana.

(2) Almena: poderea; indarra.

(3) Ez enuratu: ez dudatu; ez dudan ipiñi.

(4) Almentsu: poderetsu; indartsu.

Egiñ bear eztegu alegiñikan,
 Egia itzaltsu au¹ irichirikan,
 Barrendutzera;
 Beartubak gaude sinitstera
 Jaunak diyona;
 Izanik guztiz Jakintsun-Ona,
 Gezurrik esan
 Ez lezake iñolazko eran.

Aita, Seme, Espiritu Santuba dira:
 Nor dan iruretatik, ez asi billa,
 Besteak baño
 Ezer-ezertan ere geiago;
 Batean Batez,
 Dira Irurak Beren Izatez,
 Jaungoiko Bakar:
 Katolikoek dotriñak dakar.

ORKAIZTEGI-KO PATRIZIO-K.



(1) Egia itzaltsu au: egia goi edo errespetagarri au.